

Azaroaren 27ko 128/1990 FORU DEKRETUA, sute itzaltze eta salbamendu zerbitzuak ematearen ziozko tasaren aplikazioa erabaki eta beraren araupeketa garatzen duena (BAO Abenduaren 22koa)

Tasa, Prezio Publiko eta Bizkaiko Foru Administrazioaren beste Tributu Baliabideei buruzko ekainaren 27ko 1990/4. Foru Arauak, Foru Aldundiaren Zuzenbide Publikoko zenbait baliabideren erregimen juridikoa araupetzen du eta, haien artean, Aldundiak zerbitzugintzagarik edo bere eskumeneko iharduerak burutzeagarik ordainerazten dituen tasena.

Aipatu Foru Araueko 11. artikuluan xedatutakoa beteaz, azaroaren 20ko 1990/9. Foru Arauak Bizkaiko Foru Aldundiaren tasak ezartzen ditu, berauek 1991.eko urtarrilaren 1az geroztik exijitzen hasiko direlarik. Azken honetako 3. artikulua, Foru Aldundiak aurtengo abenduaren 31 baino lehenago tasa bakoitzaren araupeketa garatzen duten Foru Dekretuak onetsi beharko dituela aurrikusten du.

Hori dela bide, Ogasun eta Finantzen Foru Diputatuak proposatu, eta Gobernu Kontseiluak 1990.eko azaroaren 27ko bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. Artikulua. Egitate Ezargarria.

Tasa honen egitate ezargarria honako hau da: Bizkaiko Foru Aldundiaren Sute-Itzaltze eta Salbamendu Foru Zerbitzuak, gai egokiez, zerbitzuak eskaintzea, suteak itzaltzean, erregistratzen diren ezbehar eta pertsona eta ondasunen salbamenduan, Bizkaiko Herrialde Historikoan eta, salbuespenez, berorretatik kanpo, zerbitzuok eskatu edo eskatu gabeak izanik eta, gertatzen den ezbeharrari dagokionez, emaitza edo eraginkortasuna edozein delarik.

2. Artikulua. Subjektu Pasiboa.

1. Bizkaiko Herrialde Historikoko Foru Tributu Arau Orokorreko 33. artikulua aipatu eta Sute-Itzaltze eta Salbamendu Foru Zerbitzuak eskainitako eskuhartze edo laguntzarekin onuradun gertatzen diren pertsona fisiko eta juridikoak eta entitateak geratuko dira tasa hau ordaintzera behartuta.
2. Tasa honen ordainketaren erantzule solidarioak honako hauek izango dira:
 - a) Iharduera adar honetan burutzen duten arriskueterako entitate edo sozietate aseguratzaileak.
 - b) Ezbeharra sorterazi duena edo dutenak.
 - c) Ukitutako higiezinaren jabea, gelarena, industraria edo merkataria.

3. Artikulua. Sortzapena.

Tasa hau Sute-Itzaltze eta Salbamendu Foru Zerbitzuren aldetik dagokion iharduerari zerbitzua ematean sortuko da, ondore hauetarako eskea norik egiten duen garrantziarik izango ez duelarik.

4. Zenbatezko elementuak.

Tasa hau honako tarifa hauen arabera exijituko da:

1. Esku-hartzeetan erabilitako materiala:

Materiala	Irteera	Zerbitzu-ordua
Eskala eta beso giltzatua	50	5
Autoponpa astuna	40	4
Autoponpa arina	40	4
Ponpa ama astuna	40	4
Ponpa ama arina	40	4
Salbamendurako furgoia	40	4
Garabi-ibilgailua	40	4
Ibilgailu arina	30	3
Salbamendurako txalupa	20	2
Motoponpa astuna	20	2
Motobomba pesada	20	2
Elektroponpak	20	2

2. Hiriburura, portualdera eta Lurralde Historikotik kanpora egiten diren irteerak: aurreko 1 zenbakiko tarifak aplikatuko dira, bikoiztuta, eta horrez gain, ibilgailu autopropulstatu bakoitzak ibilitako kilometro bakoitzeko 40 euro zentimoko tarifa aplikatuko da.
3. Tamaina txikiko hiriko suteen kasuan —edukiontziak, zakarrontziak, etab. erretzea, adibidez—, bai eta sastrakadiak erretzearen ondoriozko suteen kasuan ere, tasa bakarria ezarriko da, 50 eurokoa; egin beharreko jarduketa hiriguneko, etxebizitzetako edo negoziarako lokal txiki bateko suteak amatatzea bada, berriz, tasa hori 80 eurokoa izango da. Tasa hori 115 euro artekoa izango da jarduketa landa-ingurunekeko urbanizazioetan eta etxebizitza isolatuetan egin behar denean.
4. Etxebizitza edo barrunbe itxietako ateak zabaltzeko, igogailuan sartutako pertsonak erreskatatzeko, eskoratzeak zein fatxada, erlantz eta teilatu-hegaletan jarduketa errazak egiteko, zuhaitzak inausteko, alarmak deskonektatzeko, antenak edo errotuluak kentzeko, animaliak jasotzeko eta antzeko beste edozein kasuetarako, Vespa velutina espeziaren habiak kentzeko zerbitzurako izan ezik —jarduketa azkarra behar badu eta kasuan kasuko egoera konpontzeko ekimen pribatuak eskurik hartzen ez badu—, laguntza tekniko ematen bada, 60 euroko tasa ordaindu beharko da. Dena den, etxe bat ireki behar bada eta horrek arriskua ekar badieziaieke etxe barruan itxita dauden pertsoneri, orduan, 30 eurokoa izango da tasa.
5. Esku-hartzean material bereziak erabili behar izanez gero (espumogenoa, hauts itzaltzailea, errepideak garbitzeko likidoa edo beste edozein produktu), material horien merkatu-prezioaren arabera kobratuko da. Esku-hartze batean Suhiltzaile Zerbitzu Foralak ez dituen zerbitzuak —materialak zein giza zerbitzuak— kontratatu behar izanez gero, zerbitzuok ere daukaten merkatu-prezioaren arabera kobratuko dira.
6. Ikuskapenak eta txostenak egitea, bai eta prebentzioaren arloan aholkularitza ematea ere, 90 euro.»

5. Artikulua. Kudeaketa eta likidazioa.

Tasa honen kudeaketa Ogasun eta Finantza Sailari dagokio eta subjektu pasiboaren aitortpen egoki edo Zerbitzuaren Gaztiguaren bitartez burutuko da, berauek Bizkaiko Foru Aldundiak egingo duen likidaziorako oinarri izango direlarik.

Tributu zorraren ordainketa eskudiruan egingo da.

Tasa honen kudeaketarako honako Foru Dekretu honetan xedatu ez den guztian eta, bereziki, haren epe erregimen eta ordainlekuari dagokion guztian, Foru Tributu Arau Orokorrak eta Bizkaiko Herrialde Historikoko Zergabilketari buruzko Araudiak aurrikusitakora makurtuko da.

AZKEN XEDAPENAK

1. Baimena emana zaio Ogasun eta Finantzen Foru Diputatuari honako Foru Dekretu honen garapen eta aplikaziorako behar diren xedapen guztiak eman ditzan.
2. Honako Foru Dekretu hau "Bizkaiko Egunkari Ofizialan" argitaratuko den egun berean jarriko da indarrean, ondoreak 1991.eko urtarrilaren 1az geroztik izango dituelarik.